

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONBOIA 2020ko MARTXOaren 31

2020ko MARTXOaren 31n Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **tronboi** espezialitatean. Bertan esku hartuko dute Juan Manuel Real, Vicent Boix eta José Manuel Sánchez irakasleek eta Musikeneko tronboi ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten tronboi ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten tronboi ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburua

- Musikenen tronboi eskola ezberdinetan (bakarkakoak eta kolektiboak) egiten dugun lana erakustea.
- Erabiltzen den metodologia jakitera ematea.
- Musikeneko tronboi gelaren kide izateko bete beharreko baldintzak ezagutaraztea.
- Musikeneko tronboi egunaz gozatzea!

Lan-egitasmoa

9.00: Ate irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Tronboi espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

10.00: Beroketa eta teknika eskola kolektiboa.

11.30: Musikeneko ikasleei entzunaldi/eskola pianistarekin.

15.00-17.00: Izena eman duten ikasleekin eskolak.

17.15-20.00: Tronboi taldea.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750 E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus